

Datu biografikoak	5
Datos biográficos	25
Une gogoangarriak	45
Momentos memorables	45
Bibliografía	61

Karlismotik humanismora

Iruñetik hegoaldera eta Tafallatik mendebalera aurkitzen den Artaxona hiria ezaguna da, besteak beste, bertako trikuharriengatik eta el Cerco esaten zaion Erdi Aroko harresi apartagatik. Herri nekazari eta tradizionalista horretan, 1927ko maiatzaren 13an, Zacarías Jimenoren eta Cornelia Jurioren seme nagusia sortu zen. Primo de Riveraren diktaduraren urteak dira, Directorio Civil izenekoaren patriotismoak bere programa teorikoa, hau da, sentimendu katolikoa, familiaren moralala eta administrazioaren zintzotasuna bultzatzen zuen garaia.

Ekonomiaren goraldiak, hezkuntzaren bultzadak, Marokorekiko etsaigoak eta Unamuno, Valle Inclán edo Blasco Ibáñez bezalako kultura pertsonaia ospetsuen aurkakotasunak markatu zuten Diktaduraren azken aldia. Artaxonako gizartean, nekazaritza oinarri duten Nafarroako erdialdeko beste herrietan bezala, integrista eta inobilismoa ziren nagusi, bereziki jarrera politikoei, sinesteei eta praxi erlijioso eta moralari dagokienez. Ekonomia funtsean laborantzan eta abeltzantzan oinarritzen zen. Bi elkarterekin eragin onuragarria zuten nekazaritzaren gainean, Sociedad de Corralizas y Electra (1897) eredugarria eta Caja Rural (1904) hura, geroko kooperatiba mugimenduen hazia izan zirenak. Herabeki bada ere, nekazaritza teknika berriak agertzen hasiak ziren sistema tradizionaletan.

Giro horretan iragan zuten haurtzarora bai premuak eta bai Jesús, María Soledad eta Tomás anai-arreba gazteagoek ere. Bi mutiko nagusien lañotasunaren erakusgarri gisa, kartoizko zaldi oparitu berriak *el Chorro*-ra edaterako emateko eraman zutenekoa oroitu besterik ez dago: ura ukitzean haien buruak desagertu ziren, protagonisten begirada ezinduen eta malkoen aurrean. Tomás *el Mauro* aitonaarekin arratsaldean egiten zituen paseoetan, Jurramendiko horizontearen kolore gorritzak odolaren, erretako komentuen eta konspirazio mugimenduen aierua pizten zuen haurraren irudimenean, dena modu lausoan hautemanik.

Gerra zibila piztu berriean Bihotz Guztiz Santuen Misiolarien Artaxonan sortu berria zuten ikastetxean sartu zen. Reketean mugimendua, *Cuarenta de Artajona* haien berriak, ehortzera herrira eramandako bolontarioen herio-

tza eta herriko giro erlijioso-patriotikoa gertutik bizi izan zituen. Hamabi urte zituela, Lluch-en (Mallorca) jarraitu zituen ikasketak.

Berriro etxera itzultzean, maisu ikasketak hasi zituen. Gerra ondoko lehen urteak ziren: nazional-katolizismoa, *Acción Católica*ren aldi gorena, eukaristiaren eta Andre Mariaren kongresuak. Iruñekoaren ondoren, Santa Mariaren koroatze kanoniko apoteosikoa eta guzti, gure biografiatuak Maisutza karrera amaitu zuen (1946ko urriaren 13an) eta Lehen Hezkuntzako Maisu titulua lortu zuen. Noain (Elortzibar) (1947) eta Lergako eskoletan (1947-1949) bete zuen lanbide hori. Eraikuntza berria zen Lergakoa, parroki elizari eratzikia, eta horretan ere jardun zuen organista moduan. Duela gutxi arte, eskola-erakina berriro artean, maisu artistaren horma-margoak kontserbatu dira. Garaiko moralak ezarritako mugen barne, eta are gehiago Ekintza Katoliko hartako kideen artean, bizitasun handiko urteak izan ziren haiek, zaindarien jai egunetan eta bestelakoetan esku hartzen zuela, txantxak eta alaitasuna ugari tartean, oraindik ere herriko adiskideek erabiltzen duten *Jaimito* ezizena ekarri ziotena.

*Magisterio Nacional Primario*a-n sartzeko oposizioak iragarririk, bidezko dokumentazioa aurkeztu zuen, paper haien artean portaera oneko ziurtagiriak zirela, herriko indar biziak sinaturikoak. Andrés Gamasa Garrido parroko jaunak ziurtatu zuen ezen *el joven José María Jimeno Jurío ha observado durante toda su permanencia en Artajona una intachable conducta moral y religiosa. Perteneciente a nuestra Juventud Masculina de Acción Católica, de la que ha sido directivo, ha cumplido perfectamente el Reglamento de la misma, siendo así modelo y ejemplar de otros jóvenes* (Artaxona, 1950eko ekainaren 15a). Guardia Zibilaren postuko sarjentu-komandanteak, bere aldetik, maisu gazteaz hau ziurtatzen zuen: *una intachable conducta en todos los órdenes de la vida, estando considerado como persona de abo-lengo derechista y de incondicional adhesión a la Causa Nacional, sin que se le reconozcan hechos delictivos* (Artaxona, 1950eko ekainaren 15a). Ofizialki eskatzen ziren ziurtagirietan hirugarrena Juan Mosso Goizueta, Nafarroako Mugimenduaren probintziako buruordearena zen; harentzat 23 urtekoa zen Jimeno Jurío, ezkongabe eta maisu hau *es de buenos antecedentes político-sociales y se le supone adicto a los postulados del Glorioso Movimiento Nacional* (Iruñea, 1950eko uztailaren 4a).

Ordurako, funtsezko aldaketa bat garatzen ari zen Jimenoren bizieran, kanpoko hainbat faktorek faboratua eta bultzatua: garaiko erlijio berotasuna, *balore* jakin batzuren gorespena, zenbait apaizen eragin zuzena, egoera sozio-politikoa. Modu horretara, kausa noble bati bere burua ematerakoan halako bokazio pertsonal bati erantzuten zion, haren bizitzan konstante bat



izango dena. Armen zerbitzuaren lizentzia hartu eta gutxira, Iruñeko apaiz-gaitegian onartu zuten (1950eko udazkena), non beste 593 apaizgai ari ziren ikasten.

Víctor Eusa arkitektoak egindako Argarai eraikuntzan, gerran odol-ospitalerako egokitu zuten hartan, Jimeno Juriok bere prestakuntza humanistikoa burutu zuen (hizkuntza klasikoak, filosofia, teologia morala, historia, arkeologia eta artea). Prestakuntza horrek, ezbairik gabe, eragina izango zuen haren geroko produkzio zientifikoan. Izpiritu eragilekoa izaki, diakono ordenatu zuten urte berean *Asociación de la Aurora* jarri zuen martxan bere herrian, Jesús Bañales maisuarekin eta herriko beste zenbaitekin batera. Gure apaizak, *Un aurora* ezizenaren atzean ezkutaturik, kanturako letra batzuk aukeratu eta letrarik ez zuten egunetarako beste batzuk idatzi zituen, hala nola San Babilena, Karitatearen Alaben etorreraren mendeurrenekoa, bai eta zaindariarena ere, Jerusalem Ama Birjinarena (irailaren 8a). Errepertorioa, makinaz idatzia, bi koloretako marrazkiz eta zenbait glosa elizkoiz hornitua eta ciclostylez inprimatua, beste hainbat lan bezala, *Aurora* apaizgai haren eskuz egina zen.

Herriz herri

Iruñean Enrique Delgado Gómez gotzaiak apaiz egin (1956ko uztailaren 22an) eta hiru egun geroago, Santiago egunean, bere lehenengo meza solemnea eman zuen Artaxonan, Jesús anaia ere hartan ezkondu zela.

Nafarroako hainbat herritan bere eliz zerbitzuan ziharduen bitartean, hainbat eskualdetako jendearekin harremanetan jarri zen eta artxiboetan ikerlanak abiatu eta garatzen zituen, gure herriaren historia lantzen zuela. Zaletasun hori laster bizilagun banaezina bilakatu zen.

Hogeitamar urte zituela, Zangozako Santiago parrokia izan zuen lehen destinoa. Gazte eta adoretsua, bertan egindako kultura jardueren artean, parroko tiple eta helduen koroak zuzendu zituen eta haiekin kontzertuak emateaz gain, gabon-kantetako lehiaketetan esku hartu zuen. Puri *Limón* Zangozako emakume ezagunaren etxean bizi izan zen eta oraindik badauzka apopilo hark margotutako zenbait olio-pintura. Haur batzuen ama zen emakume horrek ez du inoiz ahaztuko apaizak alaba txikienak besoetan zuela sotanan utzitako arrastoak lehiatuki garbitzen ari zela aurkitu zuen eguna. 1958an Zangozatik Altsasuko Lan Institutura igaro zen erlijio irakasle gisa, nahiz eta ikasketa-buruaren kargua ere egokitu zitzaion. Uxuen apaiz lagun gisa zenbait hilabete eman ondoren (badaude Ama Birjinaz eta santutegiaz egindako zenbait olio-pintura egonaldi horren oroigarri), Bearinera (Deierri) aldatu zen parroko gisa (1960-63), handik Lizarrako Eliz Barrutiko Ikastetxera joaten zela klaseak ematera.

Hirian, gero Santiago bidea biziartzeko prozesuan funtsezkoa izango zen pertsonaia bat ezagutu zuen, Francisco Beruete Calleja, Lizarrako udal idazkaria, Amigos del Camino de Santiago elkartearen eta *Ruta Jacobea* aldizkariaren sortzailea. Santiago bidean zeuden herrien egoera jakin nahirik, Beruete inkesta bat bidali zien parroko eta alkateei. Hiru erromesek bildu behar zuten inkesta hura: Jimeno Jurío, Antonio Roa eta Jaime Eguaras. Era bitxiz jantzita, Orreagan abiarazi zuten erromesaldi berezi hura, bertako priorrea zen Agapito Martínezen bedeinkazioarekin, eta Compostelan amaitu zuten. Burgostik eta Frómistatik igarotzean filmatu zituzten, bai eta NODO albistarian proiektatu ere. Esperientzia hark gainditu egin zituen jaiertzako asmoak eta ondoko hamarkadetan garatuko zen Santiago bidearen kultura fenomenoaren bultzatzaile bihurtu zen. *Ruta Jacobea* eta *Príncipe de Viana* aldizkarietan agerturiko lanak, artxibo lanarekin osaturik, bidaiaren berehalako ondorioa izan ziren.

60. hamarraldian zehar, Francoren erregimena kanpo aldera ireki zen, *planes de desarrollo* haiek egituratzen hasi ziren eta masa-turismoaren zein kanpoko kapitalaren sarrera abiatu ziren. Urte gutxiren buruan, aurrekorik gabeko aldaketa gertatu zen Nafarroan, industria iraultzaren inguruan gauzatu. Iruñeak hazkunde zorabiagarria izan zuen eta inguruko auzo langilez hornitu zen. Elizara ere iritsi zen berrikuntza Vaticano II. Kontzilioaren bidez (1962-1965). Nekazaritza eremuko parroko gogatsu bat ere izan zen kontzilio haren itxiera ekitaldian, bere bi zaldiko Citroën autoan hara iritsirik.

Urte horietan erromanizazioa izan zuen ikerketa eta azterketa gaia eta berri eman zuen haietaz Parisko *El Miliario Extravagante* delakoan, eta bere sorterriko lanak. Hain zuzen ere, kalitate desberdineko lanak eskaini dizkio bere herriari: *La enseñanza y la beneficencia en Artajona*, mojak ospitalera etorri zireneko mendeurrenaren kariaz; *Historia y leyenda en torno a la Virgen de Jerusalén de Artajona*, zaindariaren jatorriari buruzko tokiko tradizioaren kritika historikoa, eta *Documentos medievales artajoneses (1071-1312)*, obra honek ikertzaile hasiberriaren akatsak dituen arren, gaur egun ere oinarritzkoa gertatzen da bertan aurkezturiko dokumentazio aberatsagatik.

1963tik aurrera, Asiain eta Artetako parrokiarako izendatua zegoela, areagotu egin zuen produkzio zientifikoa. Tradizionalismoa gero eta zokortuago zegoen. Nafarroako biztanleriaren sektore baten euskal sentimendua gero eta indartsuagoa zen, hainbestearino non Aberri Eguna ere Iruñean ospatu zen. Lehen ikastolak sortu ziren eta ETA herrikoi baten ekintzak, gatazka sindikala eta gizarte errebindikazioak hasi edota jarraitu egin ziren. Ekintza Katolikoa, J.O.C. eta H.O.A.C. erakundeen gainbeheraren aurrean, beste talde batzuk azaldu ziren indar handiz: Asambleas Cristianas, Comunidades de Base edo Grupo Marxista de Cristianos, gero Cristianos por el Socialismo izango zena. Testuinguru horretan, gizarteari dagokionaz, gero eta kontzientziatuago bizi zen José María.

Jendea, lurraldeak eta artea ezagutzeko irrikaz, Argentina, Txile, Portugal, Italia eta Frantzia bezain desberdinak diren lekuak bisitatu zituen, azken horretan monumentu erromanikoen azterketari ekinez. Rocamadour-en (Lot) are erbesteko irrati espainiar batekin harremanetan jarri zen. Zientzia aldetik haren produkzio handiaren hasierako urteak dira. 1969an *Artajona* liburuska argitaratu zuen *Navarra. Temas de Cultura Popular* bilduman; Jaime Del Burgo Torres, bilduma zuzendariak elkarrekin lanean jarraitzea proposatu zion. Lehen eskuko informazioa eskuratzearen, Nafarroa zeharkatu zuen landa-lana eginez eta hainbat artxibo miatuz. Bilduma horretan hainbait gai tratatu zituen: Luzaide, Orreaga, Uxue, La



Oliva, Irantzu, Fitero, Aralarko San Migel, Rocamador, Erriberri, Santiago bidearekin edo Nafarrerriako gerrarekin zerikusia zuten gaiak, berrogei izenburuz goiti eginez.

Asiainen bizi zela, non pintore, eskultore, mihizatzaile eta harginek taile-rrak izan zituzten tokian, batez ere XVII. mendean, eskualdeko erretaula-ondare aberatsari buruzko berriak argitaratu zituen *Príncipe de Viana* aldizkarian, Madrilgo Archivo Histórico Nacional-ean gorde den Irantzuko *Libro Rubro* delakoaren testuaz gainera (1970). Zenbait urte geroago, bertako egonaldian aztertutako material ugari haietako zenbaitz baliaturik, pintore-eskolei buruzko bi lan argitaratu zituen, zehazki Asiaingo batzuei buruz (1984), baina Nafarroa erdian jardun zuten Las Eras maisuen sagari dagozkion datuak argia ikusi gabe gelditu ziren.

Euskal kulturaren berpizkunde garaiak ziren haiek. “Auñamendiren” ildo-tik jarraituz, beste zenbait argitaletxe agertu ziren (Kriselu, Herri Gogoa, Txertoa eta beste). *Ama Lur* filma (1968) berpizte honen gauzatze hunkigarrietako bat izan zen: gure planetaren herri arkaikoenetako baten geografia, nortasun, hizkuntza, tradizio, misterio eta errealitateen sintesia. Zenbait urte geroago, Jimenok berak esku hartu zuen filme horren omenaldian egingo zen liburuan. Aita Barandiaran Euskal Herrira itzultzen ari ziren erbestera-tuen artean zegoen; honek, atsedetik hartu gabe, Euskal Herriaren historiaurreko iragana argitzeko eta oroimen etnografikoa berreskuratzeko ahalegine-tan jarraitu zuen. Iruñean Etniker Taldeak sortu zituen, eta haietariko kide izan zen Jimeno Jurío. Ildo horretatik, inkesta etnografikoa aplikatu zuen Artaxonan eta emaitzak Cuadernos de Etnología y Etnografía Navarra aldizkarian argitaratu zituen. Barandiaranekin zituen harreman estuek baita Aitzbitarteko (Gipuzkoa) indusketetan ere harekin lan egitera eramán zuten.

Giro horrek euskararenganako amodioa piztu zuen gure autorearengan eta, geroagoko ibilbidean markatu behar zuena, *lingua navarrorum* horren testigantza galduak biltzen hasi zen, hala nola Artaxonako euskal toponimia-ren kasuan.

Transizio pertsonala

Jimeno Juríorentzat transizio prozesua 1970eko maiatzaren 31ean amaitu zen, nahi eta espero zuen sekularizazioaren data. Orduan bizi izan zuen drama pertsonalaren sakona ukitzen dugu *Al airico de la tierra*-ren sarreran idatzitako hitzotan: *ezaz jantzitako hutsunea nintzen ni*.

Laster zuzendu zuen bere bizitza. Ondoko urtearen amaieran Elena Aranguren gizarte laguntzaile gaztea ezagutu zuen eta harekin ezkondu zen 1972ko abuztuan. Nafarroako herri askotatik igaro ziren elkarrekin, etorkizuneko lanen oinarri izan behar zuten testigantza etnografikoak biltzen. Hain zuten ere, José María Sesman eta Lodosan ikerketak egiten ari zela, haren seme bakarra sortu zen (1973) eta, nola ez, orduan aztertzen ari zen Orreagako guduari buruzko jostako kantu ospetsuaren protagonistaren izena jarri zion.

Francoren osasuna gero esta eskasagoa zen. Estatu osoan zehar hainbat sektore politiko eta sozial Caudilloren erregimenaren aurka azaltzen ziren. Nafarroan, Euskal Herri guztian bezala, lan alorreko protestek aurrera jarraitzen zuten eta ETAk atentatuak egiten zituen. Burgosko Prozesuaren sei heriotza kondenei emandako erantzunak oihartzun sozial izugarri zabala izan zuen. Nafarroako Elizbarrutian, abangoardia puntako apaizek indarrean zegoen sistema kritikatzeko zuten beren homilietan, eta ondorioz erbesteratze eta monasterioetan egoteko kondenak biltzen zituzten.

Jimeno Juríoren jarduera zientifikoak bere gorenean zirauen. *Navarra. Temas de Cultura Popular* bildumarako lanak egiten jarraitu zuen. Gai eztabaidatsuetarako zaletasuna agertuz, Orreagako gudua gertaera historikoa ikertzeari ekiten dio eta horren ondorioak ematen dizkigu *El mito del Camino Alto entre Roncesvalles y Saint Jean Pied de Port* (1973) eta *¿Dónde fue la Batalla de Roncesvalles?* (1974) lanetan, bai eta geroago Hernández Palacios marrazkilari madrildar eta adiskide onaren *Orreaga* libururako aholkuan eta hitzaurrean (1980). Urte horietako lan historikoak beste zenbait lanez osatuko dira: *El Libro del Patronato de Santa María de Sangüesa (1300-1501)* (1973), *Autores del sepulcro de Carlos III de Navarra* (1974), Nafarroako inprimategiaren historiari egindako ekarpena (1974) eta, folkloreak alorrean, Kortés (1973) eta Mendikuteko (1974) makil-dantzei buruzko lanak edo San Joan jaia-aren inguruko (1973).

Hirurogeita hamargarrenetako lehen bosturtekoan azpimarragarriena, agian, Miguel Javier Urmeneta, Iruñeko Udal Aurrezki Kutzako zuzendariarekiko harremanak dira; zaletasun komunak zituzten eta adiskidetasun zintzoak lotu

zituen biak, Aurrezki Kutxa horrek San Pedro auzoan zuen Liburutegi publikoan zuzendari gisa lan egin baitzuen Jimeno Juriok. Adiskidetasun hark ekarri zituen emaitzen artean, Urmenetaren mandatuz egindako bi nabarmenduko ditugu: Udal Kutxak urtero argitaratzen zuen egutegirako eta *Hoja del Sábado*-rako Jimenok buruturiko lankidetzak. Historia txikien bilduma, ohitura bitxi eta, aldaketa sozio-kulturalen aurrean, desagertzera kondenatuak ziren praktika erritua-len deskripzioa egiten zuen lan haietan, landa-lan arretatsuaren bidez bildu ondoren eta maitasunez eta zorrotasun metodologikoz tratatzen zituela.

Al airico de la Tierra bildumari egindako hitzaurrean, 1973an, honela zioen Urmenetak kontakizunaren egileaz: *Jimeno Jurio es increíble. Nadie sabe cómo puede llegar a tanto rincón, a tanto papel antiguo, a tanta persona guardadora de consejas. Y tiene la humildad y el buen gusto de aproximarse a todo lo pequeño para hacernos la historia cercana, humana y aleccionadora.* Barreiaturik zeuden agerkari horiek Pamielak argitaratu zituen 1997an liburuki bakarrean.

Urmenetaren eta Jimenoren arteko lankidetzaren mugarririk garrantzitsuen *Historia de Pamplona. Síntesis de una evolución* (1974) liburua izan zen. Hizkuntza xalo eta adierrazean idatzia, hiriko errealitate teokratikoa agertarazi zuen bertan, tabu batzuk hautsi zituen eta hiriaren aurpegi objektiboagoa erakutsi zuen. Juan Cruz Alli, Nafarroako Gobernuak lehendakariordeak, Txalapartak (1995) kaleratu argitalpenaren hitzaurrean, liburuaren izaera nabarmentzen zuen: *boceto rápido de la ciudad a lo largo de su historia, destacando los cambios producidos en el orden social, cultural y religioso, superando la historiografía basada en la pura tradición, las leyendas y los mitos, y separando los hechos y protagonistas más destacados para acercarlos a la historia real de una comunidad viva que recibe muchas influencias ajenas.* Obra hori Iruñean aurkeztu zenean, Alli berak edukia zegokion testuinguruan ezartzen zuen: *Esa historia no se podía desencajar del momento que vivía Pamplona y que estaba viviendo Navarra. El momento del profundo cambio, de la transformación social, económica y cultural que supuso la industrialización de nuestra tierra. Dentro de este proceso de transformación había que hacer referencia a los valores, a la secularización, porque en el fondo, gran parte de los estudios que ha realizado José Mari y que aquí se recogen, tienen este hilo. La presencia del hecho religioso en nuestra tierra. En este caso, la presencia de un hecho cultural que antes no se había tocado, y la culminación de esa transformación de un proceso global de secularización sin el cual no se puede comprender qué es la realidad actual de nuestra tierra.*

Hain zuzen ere, hiriko kristautasunaren jatorriaz eta Erdi Aroko jaurerri teokratikoaz egiten zen azalpen berritzailea zela eta, Administrazio Kontseiluak betatu egin zuen Urmenetak banketxearen mendeurrenerako agindua zuen liburu hura, eta beste argitaletxe batek kaleratu zuen.

Transizio politikoa

Francoren heriotzarekin (1975eko azaroa) transizio politikoaren aldia hasi zen. Alde bateko zein besteko jarrerak erradikalizatzen dira. Arrazoi ekonomiko eta politikoengatiko lanuzteek milaka manifestari biltzen dituzte. Bilera klandestinoak ohikoak ziren. R. Pellejeroren heriotzak Jurramendin (1976) eta 78ko Sanferminetan poliziak eragin zuen Germán Rodríguezen hilketak enfrontamendu politikoaren gradu gorena markatu zuten.

Euskaltzaletasuna gorantz zihuan berriro eta esperantzaz ikusten zuen etorkizuna. Demokrazia irrikatuak ametsetan jartzen zituen garaiko intelektuallak. Gure biografiatuak jakinmin berrituz ekiten dio aldi honi. Historiako karre-rak bukatu nahirik Unibertsitateko geletara egindako saioa zapuzturik geratu zen, orduko Foru Kontseilaria eta geroko lagun handia izango zen Javier Yaben Bengoecheak Diputazioari zuzentzen zion kexa eraginez. Guztiairekin ere, gai asko lantzen jarraitu zuen. Nafarroako Erriberako folklore lanei lotu zitzairen, erromanizazioa eta artea aztertu zuen Garisoain herrian (Gesalatz) eta sorginkeria modernoaren inguruko lana argitaratu zuen Iruñeko Udal Aurrezki Kutxaren *1977ko Egutegian*.

Gure biografiatuaren obra historiografikoaren norabide aldaketa da, agian, beste aldi historiko honen ezaugarri nagusia. Inguruko errealtate politikoaren eraginez, historia berrienari ekitea erabaki zuen Nafarroaren nortasunaren ezaugarri sakonenetan ikertzearen, diktadore zaharren denboretan sarrera debekatua zuen gertuko iragan hura berreskuratzen saiatuz. Manuel de Irujo y Olloren laguna zen, bisitua baitzuen erbesteko azken urteetan eta bera ere han egon zen Noain-Iruñea aireportura egungo historian Lizarrak eman duen seme ezagunenari harrera egitera irtendako jendearen artean, 1977ko martxoaren 24an.

Mirentxu Purroyk zuzendaritzapeko *Punto y Hora de Euskal Herria* aldizkaria izan zen Artaxonako idazlea murgildurik zegoen gai berrien korrontea bideratu zuena. Hor ukituriko gaiak funtsean Euskal Estatuaren eta Nafarroaren ingurukoak izan ziren, bai eta gerra zibilak ekarritako giza bizitzaren galerari buruzkoak ere. Estatuari buruzko artikulua liburu gisa bildu ziren, Txalapartak berriro argitaratu duena (1997). Argitalpen honen hitzaurrean, Emilio Majuelok obra baloratzerakoan dioenez, obra hori *bizitza ego-kitu zaion errealtatearekin konprometituriko historialariarena izan da, errealtate hori kritikatu egiten duela eta hartaz dauzkan aurreko ezagunek hobeto*

ulertzen lagutzen dute, baina beti ere presupostu metodologikoez, gaiaren aukeraketak eta kontsultaturiko iturrien pisuak ikerketaren ondorioen garrantzia askoz garbiago ikustea bidera dezaten moduan.

Nafarrorako 1936ko gerrak giza bizietan izan zuen kostuari buruzko ikerketa soziologiko-historikoa izan zen beste gai garrantzitsua, bai erretagoardiari eta bai guda-fronteei dagokienez. Bizkaiko eta Gipuzkoako auzitegiak ikuskatu zituen guduan erori eta modu ofizialez jasorik zegoen nafarren kopurua egiaztatzearen, bai eta gauza bera egin zuen Nafarroako udal eta parroki artxiboetan errepresaliatuen arrastoaren atzetik. Dei eta mehatxu anonimoek gibelarazi zuten egiteko hartan. Bildutako materialen parte bat obra monumental baten oinarria izan zen: *Navarra 1936. De la esperanza al terror* (1986), obra hartan Jimeno Jurío aholkulari izan baitzen.

Egungo historia konprometituaeren ildo beretik beste hainbat lan burutu zuen, hala nola Marino Ayerraren *No me avergoncé del Evangelio* obraren hirugarren argitalpenerako oharra (1978); Vicente Huici eta Mikel Sorauarekin batera egindako *Historia Contemporánea de Navarra* (1982) eta Manuel de Irujoren giza nortasunaren analisisa (RIEV, 1983). Bitxia, berriz, *La Verdad* Iruñea eta Tuterako Elizbarrutietako Parroki orriaren 1976ko abenduaren 26ko alea, non *¿Navarra es vasca?* izenburua zuen Jimenoren artikulu bat agertu zen.

Amayur, símbolo de Navarra ere testuinguru horretan sartzen da, Nafarroaren independentziaren alde Gaztelaren aurka gudukatu ziren gizonen kantua eta gorazarrea baita. Idazteko presak, lanaren kalitatea apaltzen badute ere, egun gogoangarri batean aurkezteko premiak eragina izan ziren, 1982ko urriaren 12an, hau da, Foru Diputazioak 1922an Nafarroako erresumaren azken defendatzaileen omenez eraiki zuen monolitoaren erreinaugurazio egunean. Liburu honen bidez autoreak oroitzapen historikoa berreskuratu nahi zuen herri baten kontzientziari begira, argi baitzuen: *oroitzapen historikorik, informaziorik gabeko herria, bere balio propioak ezagutzen ez dituen, bere nortasuna ezagutzen ez duena, guztiz aproposa da kolonizaziorako.*

Lan historiko horiekin batera etnologia eta folklore alorreko ikerketa eta lanak egin zituen. Jaien egutegiaren hainbat alderdi plazaratu zituen zenbait aldizkaritan: Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra (*Martes de carnestolendas en Pamplona* (1601), 1979); Dantzariak (*Los Mayordomos en Nafarroa*, 1979; *El carnaval pamplonés en 1601*, 1980; *Danzas populares en Tolosa*, 1982; *La Bordon Dantza de San Juan de Tolosa (1700-1720)*, 1982).

Idazlearen egiteko horri Jimenoren nortasunaren beste alderdi bat erantsi behar zaio, hots, bere ezagupen zabalen hedatzailearena, urte horietan Nafarroa guztian barrena emandako hitzaldi eta solasaldien bidez burutu zuena.

Iragan mutua berreskuratzea

Nafarroan larogei eta larogeita hamargarreneko urteak, alde batetik, euskararen herri bultzadarenak izango dira, ikastolak eta gaueskolak direla bide, eta, bestetik, euskara beraren murrizketarena, erakunde eta politikari jakin batzuen aldetik. Euskadiko Autonomia Erkidegoarekiko erabateko bereizkuntza aldeztuko du sektore batek. Horren aitzindariak Parlamentuan gehiengoa duten taldeak dira; euskarak horien begi ninian moneta politikoa soila dela dirudi, aldian aldiko interesaren arabera erabiltzen dena, *lingua navarrorum* deiturikoa beti galtzaile ateratzen delarik Ley del Vascuence delakoa bezain erabaki murriztaileen ondorioz. Horren kontrapuntu gisa, haurren matrikularioa gorantza doa euskarazko eruedetan, hizkuntzak astiro baina gero eta sarrera handiagoa du administrazioan edota nafarrei utzitako kultur altxor handiena sustatzea edo berreskuratzea helburu duten ekimen eta elkarte mota guztiak sortzen dira.

Ustelkeria politikoen kasuen aurrean, kulturak bere bidea egingo du hainbat frontetan jardunean jarraituz. Korrante berriak eskultura eta pinturaren alorrean; zinea sendotzea, dudaezineko protagonista batekin, Montxo Armendariz; Nafarroako Antzerki Eskola izenekoaren agerpena eta taldeen ugalketa antzerkiaren munduan; dantzari talde berriak eta bazirenak sendotzea; Pablo Antoñana, Sánchez-Ostiz edo Victor Moreno tamainako literaturgi-leak gartzelaniatz, eta Patxi Zabaleta edo Aingeru Epaltza euskararen alorrean.

Gure autorea, gero eta gordeago ikerketaren baitan dituen probintziako ikuskariaren ikusle harrিতua da, horren emaitza *Indurain-Indurain!* oihua nafartasunaren nortasun gorentzat duen zillbor jotero baten egozentrismoa delarik. —ez ote da hori bezain nafarra Tourra bost aldiz irabazi duen txapeldunaren irudia 1990eko Nafarroa Oinezen kanta abesten ari zela?— Ildo horretatik argigarriak dira Jimeno Juríoren esker onezko hitzak, 1995ean Nafarroako hainbat eskualdetako kultur erakundeek egindako omenaldian: *Hau benetan gozagarria da, bai eta Nafarroa den bezala ulertzen dugulako testigantza ere, ez kolore bakarrekoa, baizik eta anitza, erromatarrek ikusi zuten bezala: “ager” eta “saltus”; geuk ikusten jarraitzen dugun bezalaxe, mendia eta erribera, ez soilki Bortzirietako, Iparraldeko edo Baztango berdea, baizik eta baita Bardeetako arrea; kristauak eta mairuak, eta intsumituren bat edo beste*

tartean; euskara eta erromantzea. Horren alde lan egiten dugu eta horretan ahalegintzen gara: denok ikus eta bizi izan dezagun Nafarroa den bezala, anitza eta aberatsa, eta horrexegatik atseginagoa.

Nafar erresumaren hizkuntza nazionalaren ikerketarekiko konpromezua herri ekintzetako partaidetza aldizkatuko dira, hala nola *Korrikaren* lehen bi ekitaldietan. Lehenbizikoan Errotxapea auzoan hartu zuen lekukoa Jesús Lezaun eta Patxi Larrainzar apaiz lagunen eskutik; bigarreanean, 1982ko maiatzaren 22 hunkigarri batean, *Korrika* abiarazi zuen Iruñeko Foruen plazan sorbaldan 1 zenbakia zeramala. Nafarroa Oinez ekitaldiak, helduen alfabetatze kanpainak eta haurren euskarazko matrikulazioa, ETB Nafarroan hartzearen aldeko mugimendua, Euskalerria Irratiaren legalizazioa eta beste hainbat proiektuk artaxonar ekintzailearen sustengua bilduko dute.

1983tik, San Pedroko Liburutegia utzi ondoren, gehienbat ikerketari ekin dio, batez ere toponimiari. Denbora batez hizkuntza agrafoa, euskara, berreskuratzen saiatu zen, iragan mutua artxibo-fondotan apenas ikuskatua eta landetatik desagertzeko zorian, lursailen kontzentrazioek eta urbanizazio berriek joa zelarik. Asiain, Lizasoain eta Oltzako toponimia bildurik (1981), euskara Iruñea eta Iruñerriko hizkuntza gisa hartuko du langaitzat.

1983ko azaroan Manuel Lekuonaren proposamenez, Nafarroako Eusko Ikaskuntzako Lehendakariorde izendatu zuten, aurretik ere kargu horretan izan zelarik. Lan sailak eta ikerlanak bultzatzea izan zen haren kezka, antzinako *merinaldeetako aste* haien antzera. Hartarako, Nafarroan kulturaz interesaturiko erakunde guztien batasuna aldeztu zuen. Eusko Ikaskuntzak antolatutako ekitaldien artean aldi horretako une gogoangarriak dira: Manuel Lekuona Saria Jorge de Riezu aitari ematea (1985) eta Angel Irigaray eta Luis Oroz Zabaletaren oroimenez egindako omenaldiak (1985), zeinetan Jimenok txostengile gisa esku hartu zuen. Geroago esku hartze horiek Eusko Ikaskuntzako Saileko Koadernoetan argitaratu ziren. Julio Caro Barojari egindako omenaldian (1986), Jimenok *zendeak, gorteak* eta Artaxonako XVI. mendeko beste errealitateak aipatu zituen haiei buruzko datuak ekarriz.

Ricardo Ciérbidek proposaturik, Euskaltzaindiak *Onomasticon Vasconiae* proiektu handia abiarazi zuen. Lehen buruan, Iruñerriko toponimiaren bilketa egin zen, tratamendu aitzindaria erabiliz, hau da, Erdi Arotik gaurko egunerainoko dokumentu iturrien ustiapena, tokian tokiko auzoei egindako elkarriketa pertsonalekin osatuz. Emaitzak sei liburukitan argitaratu ziren (Zendeak lehenbizi, Zizur, 1986; Galar, 1987; Oltza, 1989; Iza, 1990; Antsoain, 1992) eta Iruñeari dagokionarekin (1994) gailurra eman zion. Patxi Salaberri Zaratiegirekin egina, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak emandako Ikerketako Aparteko Sariarekin sariztatuturik gertatu zen.

Aldi berean, bestelako ikerketa toponomastikoen emaitzak argitaratzu joan da aldizkari espezializatuetan. Lan sistematiko mota hauetako aitzindari gisa, hainbat oharpen eta proposamen metodologiko ekarri zituen. Horien artean, nabarmentzekoak dira: *Toponimia en Iruñerria: Sistemas de denominación y localización* (1985), *Encuesta toponomástica* (1988), eta *Recogida de Toponimia. Ámbito, fuentes, metodología. La experiencia navarra* (1991). Izaera historiko markatuagoa dute beste zenbait ekarpenek, hala nola *Sustitución de topónimos por hagiónimos en Navarra* (1985), *Nombres vascos y romanceados de pueblos navarros* (1986) edo *Topónimos navarros con sufijo -AIN* (1986), bai eta zenbait toponimo jakini buruzko berriak eta iruzkinak: Lizarra-Estella eta Atarrabia-Villava (1988); Arrizabalaga-Campanas eta Artederreta-Carrascal (1989) edo Los Arcos-Arkueta (1990 eta 1994).

Liburu bana eskaini zion Tafalla eta Burlatako toponimiari. Eusko Ikaskuntzaren *Angel de Apraiz Bekaren* bidez burutu zuen lehena (1989) interesgarria da, Nafarroan hitz egiten ziren hizkuntza eta dialektoen muga geografiko, diakroniko eta soziologikoak finkatzen laguntzen duten materialen ekarria egiten duelako. Burlatari dagokion liburuan, Udalak eginarazia (1991), toponimia nagusia eta xehea, odonimia eta oikonimia aztertu zituen.

Gure autoreak egindako material historikoen ekarpena oinarri gisa hartu zen *Nafarroako Herri Izendegia. Nomenclator euskérico de población de Navarra* (1990) egiteko, eta Nafarroako herri izenen normalizaziorako benetako gida izan dena, Foru Komunitateko Gobernuak hari jarraitzen diola gaur egun.

Nafarroa, toponimia eta mapagintza. Navarra, toponimia y cartografía izen-buruko proiektu handia, aitzindaria baita nazioarteko mailan ere, alor horretako lanen amaiera duina izan da. Horren aurretik izen bereko lan bat argitaratu zuen, lan horretan jarraitu beharreko metodologia aurkeztuz. Ekimen hori Estebe Petrizán, Nafarroako Gobernuko Hizuntza Politikarako zuzendari nagusiarengandik sortu zen eta sail horretatik José Luis Mendoza, Mirentxu Amigorena, José María Rodríguez Ochoa, Fernando Pérez de Viñaspe eta Juan Ramón Elorzek esku hartu zuten lanaren garapenean. Toponimia ofizialaren eskarri den kartografiaz Trabajos Catastrales S.A. enpresa arduratu zen. Jimeno Jurioren zuzendaritzapean; filologo eta historialariz osaturiko talde batek, Mikel Belaskok koordinaturik, materialen bilketa bururatu du eta aipaturiko bilduma horretan gauzatu dira, dagoeneko bildumaren berrogeita bost liburuki argitaratu eta amaitzerako hirurogei inguru izango direlarik.

Lana tokiko monografiaren arabera aurkezten da, herrigune bakoitzeko toponimia xehea biltzen duten 1:5.000 eskalako mapez lagundurik, eta funtsean toponimoaren bilakabide historikoa (dokumentu bidezko testigantzak)

eta egungo ahoskera erakusten ditu. Euskal toponimoen normalizazioa izan zen proiektuaren helburuetariko bat, horiek desitxuratze prozesu gogorra jasan baitute, batez ere Erdialdeko Nafarroan. Obra hau benetako lan tresna da historialari, antropologo, geografo, biologo eta edafologoentzat, bai eta Nafarroako geografia eremua ikergune hartzen duten beste disziplina askorentzat.

Alabaina, toponimiak gure lurraldearen euskaldutasuna erakusten badu ere, beste ikerketa-lerro batek berretsi zuen hori, eta hartara zuzendu ditu Jimenok azken urteotako ahaleginak: euskararen historia. Hitz hori erabili izan dute nafarrek Erdi Arotik, beste zenbait adituk *vascuence* delakoa baliozko bakartzat hartzen badute ere; hori dela eta, gure pertsonaiak egia-aren alde agertu zen artikulu argigarri batean... *La voz 'eusquera' ¿invento moderno?* (1996). *Lingua navarrorum* honen atzerakadaren tratamendu historikoarekiko sentiberatasun berezia agertuz, Erdialdeko Nafarroako hizkuntza fenomeno eta bertako herri eta eskualdeetako jendearengan hizkuntzak jasaniko geroz atzerakada nabarmenagoa izango da Jimenoren artikulu gehienen gaia, hala nola Urralgoiti, Agoitz, Galipentzu, Oibar, Zaraitzu, Almiradio, Eguibar, Ezkirotz, Zirauki edo Allingo kasua erakusten dutenetan bezala.

Askoz argigarriagoak gertatu dira, ordea, Iruñeari eskainitako azterlanak, horiek ere Fontes Linguae Vasconum aldizkarian argitaratuak azken zazpi urteotan. Hiriburuari iruinsemeek emandako izenen gainean ikustaldi esan- guratsu bat egin ondoren, Iruñeko auzoen hizkuntz bilakaera aztertu du, aurkikunde pizgarriak agertaraziz hala nola José Moret apaizaren euskalduntasuna, San Zernin parrokian bataiatu zuten eta Erresumaren kronikagile izan zen hark euskara erabiltzen baitzuen bere apaiz zereginetan, edota San Zerningo burgoari dagokiona, bertako biztanleria XVII. mendean ere sakonki- ro euskalduna baitzen. Datu horiek, eta beste anitz, azterlan orokorragoen oinarri izan ziren, hala nola *Las lenguas escritas y habladas en Pamplona* (1995), *Iruñeko Euskararen historia-Historia del Vascuence en Pamplona* (1996) eta *Historia de Pamplona y de sus lenguas*, argitalpen zuzendua eta aldi historiko desberdinen hizkuntza bilakaerari buruzko oharpenez emenda- tua. Autorea obra horren bidez hasi zen *Euskal Fundazioarekin* harremanetan, harez geroztik haren lanen babeslea dena.

Juan de Beriain eta Juan de Amendux, XVI. mendeko bi idazleri buruzko ikerketak izan dira euskal literaturaren ezagupenari egin dion ekarpena. Bietariko lehena giltzarria dugu apaizen eginkizuna eta euskarazko dotrina ezagutzeko, eta bigarrena euskararen presentzia Nafarroako Erriberan antze- mateko.

Alor honetan Jimeno Juriok egindako azken ekarpen handia, sorreratik beretik obra klasikoa gertatu da: *Navarra. Historia del Euskera* (1997). Azalpen metodologiak, oharpen kritikoaren multzoak eta erabilিতako dokumentazio historikoa mugarri bilakatu dute lan hau Europako antzinenezkotzat hartua den hizkuntzaren bilakaera historikoa ezagutzeko. Liburu hau, Patxi Salaberriren ustetan, *behar-beharrezko zen honelako lan sistematikoa egitea, baitezpadako genuen orain arte han-hemen argitaratu eta aldizkari-liburuetan barreatutako material guztiak bilduko zituen liburua kalera ateratzea. (...)* Artaxonakoaren libururik hoberenetakoa da bilketatik eta ikerketatik anitz duen hau, euskalari eta euskaltzale guztiak irakurri beharrekoa, orain arte nahitaezko genituen beste lan batzuk osoki baztertu dituen.

Jimeno Juriok ez ditu alde batera utziko etnologia eta folklore gaietako azterlanak, han-hemenka azaltzen baitira halakoak garaiko obra historiografiko eta toponomastikoen artean, egunerokoaz baztertzeko sustraietara itzuli, asaben lur mokorra irauli eta haien izpirituan edan beharra balu bezala. Dantza tradizionala da behin eta berriro ukitzen duen gaia, horretaz idazten baitu zenbait aldizkaritan —*Dantzariak* eta *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, Eusko Ikaskuntzaren *Folklore Saileko Koadernoetan*, eta Jesús Ramosekin batera, *Tradicón y danza en España* liburuan (Madril, 1992).

Nabarmentzekoak dira Monreal hiriko etnografia historikoari (1996) eta Añarbe herriguneari eskainitako monografiak, Tolosako hilarri diskoidalen erabilerrari buruzko berriak, *Hallazgo de cabeceras de sepulturas al modo antiguo en Tolosa* (1985) izenburuko lanean argitaratuak, eta Nafarroako Museolari emandako hiru hilarrien azterketa, *Estelas discoidales de Bearin, Akiturrain y Erespuru* (1996), semearekin lankidetzan egin duen lehen artikulua.

Garai honetako etnologia-folklore saileko produkziarik luzeena jaien egutegiari eskainitakoa da. Lizarraldeko Besta Berriari buruzko azterlana (1987), zehaztasun handiko dokumentazioaz hornitua, tokian tokiko interesa baino haratago doa, Nafarroan jaiak duen Erdi Aroko jatorriaz emandako berriengatik. José María Lacarraren omenaldi gisa burutu zuen, hura hil eta hiru hilabetera. Beste zenbait artikulua hainbat gairi eskainiak dira: jaiak eta maiordomoak (1987), gaztelerazko eske-kopla nafarrak (1987), *Ritos de primavera y verano*, Madrilgo Naria aldizkarian argitaratua (1987); *Calendario festivo*, lehen bi liburukiak Negua eta Udaberriari dagozkienak (1988 eta 1990 hurrenez hurren), Nafarroako Gobernuaren *Panorama* bilduman; eta *Celebraciones festivas. Entre el pasado y el presente, Signos de Identidad histórica para Navarra* liburuan (1996). Lan horiek egiterakoan erabili dituen material argitaragabeak hirurogeita hamargarren urteetako landa-lanetan eta baliaturiko bibliografia zabalean oinarriturik daude.

Azken hamabost urteotan egindako lana ez da euskararen historia, toponimia edota etnologiara mugatzen. Garaitsu horretan sorturiko zientzia eta kultura erakunde berriek beren sorrera-bazkideztat hartuko dute, hala nola *Sociedad Vasca de Historia de la Medicina* (1984), *Instituto Gerónimo de Uztáriz* (1985), edota *Ateneo Navarro* (1985) direlakoak. Halaber, hainbat gai historikori helduko die. Erromaniazioa da Artaxonako harri taurobolikoari buruzko lanaren esparrua, semearekin batera egindakoa (1997). *Despoblados en el Valle de Garaño* (1986) izenburukoan, Erdi Aroko toponimoak agertarazten ditu, Erdi Aroko biztanleriari buruzko lanetarako interesgarriak diren beste datu batzuekin batera.

Nafarroako Erdialdeko bide eta kamioei dagokienez, Done Jakueko bidea eta Erriberakoa gurutzatzen zireneko Arrizabalagako ermita (Tiebas) eta beste zenbait bilgunea zen San Gineskoa Lergan gune garrantzitsuak ziren. Lergakoaz oso gutxi ezagutzen den moja-komunitate bat arduratzen zen Erdi Aroan. Haiek ikertzeari ekin zien dokumentazio zabalez horniturik: *Erromes eta Tuterako kamioak. Los Caminos de Santiago y de la Ribera en Tiebas* (1989), eta *El puerto de San Ginés de Lerga* (1994). Eunateko basilika oktagonalarri buruzko lanak gututz argigarriak gertatzen dira Done Jakueko bidearen historiografiarako; dokumentazio berriaz baliatuz zenbait topiko eta enigma agertarazten ditu, bereziki Cofradía de Nuestra Señora de Oñate delakoaren estatutuen ikerketaren bidez Príncipe de Vianan argitaratu funtsezko bi artikuluetan (1995 eta 1997).

Lizarrako Foruaren gorazarrean Príncipe de Viana aldizkariak ateratako ale berezian argitaratu zituen ikerlanen arteko batzuk gure autoreak sinaturik ageri dira: *Libro de Censos de Estella (1354)*, *Avecindamiento de Adrián de Amberes en Estella*, eta goian aipatu duguna, hots, foru testuan agertzen den *Arkueta* toponimoa. Los Arcosekin batzen duena.

El Reino de Navarra izenburua daraman Erdi Aroko historiaren sintesiak esparru zabalagoa hartzen du eta *Gran Atlas histórico de Euskal Herria* (1985) obra handiaren atala da, bai eta Nafarroako eta Euskal Herriko historiaren laburpenak, zein bere ikuspegi berezitik. Hori da beste zenbaiten kasua, hala nola *Nafarroako historiografiaz. Historia de Navarra, Euskal Herria. Historia eta Gizartea. Historia y Sociedad* obran (1985); eta *History, Histoire, Historia, Historia*, Xabi Oteroren *Euskal Herria. Esentziak* argazki liburuan (1997). Tafallako hirian zentratua bada ere, haren *Vocabulario histórico* zirriborroa lehen mailako lan tresna da (1987 eta 1991). Bertan udaleko artxibotik ateratako bostehun erritz bildu ditu eta horien bidez gizarte, politika eta hizkuntza mailako errealitateak isladatzen dira. Jimenok lan honetarako oinarritzat hartu dituen Erdi Aroko akta libu-

ruak (1490-1508) hitzez-hitz transkribatu egin dira; horien argitalpenak Erdi Aroko amaiera aldiko nafar komunitate baten, kasu honetan Tafallakoaren, eguneroko bizitzari buruzko lanaren iturri izango da etorkizunean.

